Eulàlia Galofré Mora
Francesca Galofré Mora

Abesten 1

MUSIKAREN HIZKERA

DINSIC
MUSIKA ARGITALPENAK

ABESTEN 1

Azalaren diseinua: Antoni Bassó
Irudiak: Anna Bassó
Pianorako akonpainamendua, testuen moldaketa eta egokitzapenak:
Mariona Vila, Enriqueta Farràs, Narcís Bonet, Anna Alegre, Lluïsa Alegre,
Xavier Torns, Asunción Robles, Javier Duque, Jordi Lluís Rigol
Musika egokitzapena: Ana Etxeberria
Itzulpena: Itziar Bilbao

Maketa: DINSIC GRÀFIC

1. argitalpena: 97ko maiatza
1. berrinprimatzea: 2001eko uztaila
2. berrinprimatzea: 2007eko uztaila
3. berrinprimatzea: 2015eko uztaila

© Copyright: Eulàlia Galofré Mora eta Francesca Galofré Mora
Argitalpen eskubideak nori emanda: Publicacions Musicals DINSIC
Santa Anna, 10 E 3ª - 08002 Barcelona

Inprimatzailea: Service Point
Pau Casals, 161-163
08820 El Prat de Llobregat (Barcelona)

Lege-gordailua: B-29.697-2007
ISMN: 979-0-69210-907-5

Debekatuta dago liburu honen edozein atalen erreprodukzioa egitea, edozein dela ere, erreprografia eta tratamendu informatikoa barne, edota liburu aleak alokatu eta uztea idazlearen aldez aurretiko baimen idatzirik gabe. Debeku horiei jaramonik egiten ez dienak legeak ezarritako zigorrak izango ditu.

Banatzailea: Musika banaketak DINSIC
Santa Anna, 10 E 3ª - 08002 Barcelona
tel. 34 93 3180605 / fax 34 93 4120501
e-mail: dinsic@dinsic.es
http://www.dinsic.cat
http://www.dinsic.es http://www.dinsic.com

Eusko jaurlaritzako hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa sailak onetsia. (1997/6/10)

Hitzaurrea

XXI. mendearen atarian egonda, uste dugu denok onartzen dugula beharrezkoa eta komenigarria dela Musika hezkuntza lehenengo adinetatik bideratzea.

Kontutan hartu behar dugu gaur egun umeek bizi duten gizartea musikaz beterik dagoela: musika edonon, soinua toki orotan, hizkuntza guztietan, dena nahasita. Beraz, material horrek guztiak duen aberastasuna hartu eta umeari entzuten, ezagutzen, sailkatzen, egiten, sentitzen, gozatzen irakatsi behar diogu. Edo beste era batera esanda, inguruan duten musika eskaintza zabala hartzeko prest eta adi egoten irakatsi behar diegu: ikas dezatela musika entzuten, jotzen, musikarekin jolasten, kantatzen, sortzen, egiten, sentitzen, imitatzen, adierazten, oso baliagarri izango zaie-eta euren bizimoduan.

DINSIC argitaletxeak eskaintzen dizun liburu honek material lagungarria izan nahi du bai irakaslearentzat bai ikasleentzat. Liburu honen helburua da umeei Musika hezkuntza ematea, musika bizitzan baliogarria den beste hizkuntza mota bat dela oinarritzat hartuta. Hori dela eta, abesti zerrenda luzea sartu dugu liburuan, noski, ahaztu barik Euskal Herrikoak bertakoak diren abestiak.

Liburuaren helburuak aurrerago azaltzen dituzte idazleek eurek. Guk nahiago dugu metodo hau erabiliko duten musika irakasleen eginbehar garrantzitsua azpimarratzea.

Harreman pedagogikoak hartzea-komunikatzea bultzatu behar du uneoro. Ume taldeak jarraitu beharreko egitura argi bat izan behar du esku artean, baina era berean motibatu egin behar du. Musika irakasteko, beraz, funtsezkoa da ikasgelako giroa.

Aukera bat baino gehiago proposatu behar dira, egiteko era bat baino gehiago, jakinmina pizteko gauza izan behar dugu, barrea eragiteko; ikasgela elkartruke, bizimodu esparru bihurtu behar dugu... Egunero, orduoro, Pedagogia egokia, jokoa, irribarrea,... sortzen saiatu behar dugu.

Helburu zail hori lortzeko lagungarri duzu liburu hau, eta, beraz, umeekin egiten, abesten, jotzen, gozatzen, bizitzen... dugun guztiak balio izango digu eskola atseginago eta kultoagoak egiteko. Horrez gain, ikasleak zoriontsu direla ikusten badugu badakigu bide onetik abiatu garela.

Ana Mª Etxeberria
Luchy Mancisidor

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

LIBURUAREN HELBURUAK

Musika irakurtzen eta idazten ikasteko, hau da, Kontserbatorioetan eta Musika Eskola berezituetan ikasten den eta normalean solfeo esaten zaion hori ikasteko, oso material gutxi dago eta dagoenaren artean ez dago ugaritasun handirik. Aspalditik generabilen hori buruan eta ikusi genuen material berri batzuk sortzea beharrezkoa eta komenigarria zela.

Normalean Musikaren Pedagogian aritzen gara, Musika Eskoletan zehatzago esateko, eta, horregatik, material berri batzuek nondik nora joan beharko luketeen pentsatu genuen: nolakoak izan beharko luketen, nolakoak izatea gustatuko litzaigukeen, zer beharrizani erantzun beharko liezaioketen eta nori zuzenduta egongo liratekeen.

Musikaren hizkera unibertsala eta asemantikoa denez, sarritan musika idazten eta irakurtzen irakastea kultur nortasun guztitik kanpo geratzen den hezkuntza da. Askotan, gainera, ondo zehaztu gabeko helburuei begira dago eta ez du norabide argirik izaten.

Baina denok ados gaude solfeoaren helburu nagusia Musikaren oinarrizko elementu idatzien zeinuak ikastea dela. Baina zein Musikatakoak? Zein autore, garai edota herritakoak? Eta nola egin? Edo nola entzun?

Galdera hauek guztiak buruan bueltaka erabili ondoren, ondorio garbi bat atera dugu: egin ditugun materialak gure ama hizkera musikalean errotuta daude; hau da, lehenengo urrats hauetan, gure folklore tradizionaleko abesti eta melodiak erabili ditugu atal bakoitzean lantzen diren kontzeptuak azaltzeko. Tradiziotik hartutako material horiez gainera, zailtasun zehatz batzuk lantzeko, autore batzuek egindako abesti/melodiak eta ariketak ere sartu dira. Eta hori guztia tresna nagusitzat ahotsa erabiliz.

Ikasleak eta irakasleak buru-belarri lanean hasteko, lan multzoetan ondo bereizirik dauden materialak behar ditugu. Irakasleak ezin dira ibili manualak irakurtzen. Ikasleei, musikaren hizkeraren hezkuntzan nondik nora jotzen irakatsi behar die irakasleak, musikaren hizkera hori definitzen duten parametro guztiak ondo identifikatuz: entonazioa, erritmoa eta harmonia ikasi, irakurri eta idatzi; baita entzumena hezi ere. Audizioa eta koral kantua beste liburu batzuetan lantzen dira.

Musikaren hezkuntzaren zentzumenezko alderdi horrek, entzumenaren heziketak alegia, aparteko tratamendua behar duela uste dugu.

Musikaren hezkuntza ezinbestekoa dela azpimarratu nahi dugu. Ikasleek ez dute musika irakurtzen eta idazten sekula ikasiko inoiz musikarik egin ez badute; hau da, abestu, dantzan egin, entzun, bizi eta musikaren kualitateak behatu ez badituzte, ez dute sekula ikasiko. Zoritxarrez, oraindik ere gure ikastetxeetan sarriegi egiten da hanka sartze hori.

Ume guztiek ikasten dute euren ama hizkuntzan hitz egiten (ahozko ikasketa), irakurtzen eta idazten ikasi aurretik. Musikarekin gauza bera: beharrezkoa da abesten jakitea solfeatzen ikasten hasi baino lehen.

Beraz, kontutan izan liburu hau erabiltzen hasi aurretik umeak eginda izan behar dituela ahozko musikaren gaineko ikasketak; hau da, normalean zentzumenezko heziketa edo musika sentsibilizazioa esaten zaion hori eta eskolaurrean eta Lehen Hezkuntzaren aurreneko mailetan egiten dena edo egin beharko litzatekeena. Ikastetxe berezitu batzuetan eta Musika Eskoletan ere egiten da.

Material hauek oso baliagarriak izan daitezkeela uste dugu Oinarrizko Musika Eskoletako musika hastapenetarako, Prestakuntza edo Oinarrizko Kontserbatorioetako Oinarrizko Graduko Lehen mailarako, Lehen Hezkuntzako Eskoletarako, arte eta kultur zentro elkarteetarako musikaren hezkuntza arlorako, eta baita taldeka edo banaka arlo honetan lan egiten duten partikularrentzat ere.

Gure ikasleen musika maila gora-behera, liburu hau erabili dezakegun edo ez erabakitzeko, ikasleek normaltasunez irakurtzen eta idazten dakiten ikusi behar dugu. Normalean, 7-8 urteko umeek, hau da Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailan dauden umeek betetzen dute baldintza hori.

Denoi, irakasle eta ikasleei, lan atsegin eta onuragarria opa dizuegu. Eta, amaitzeko, Z. Kodály-ren esaldi bat gogoratu nahi dizuegu: “Hobe da irakasle ona metodo ona baino”.

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

IRAKASLEENTZAKO ORIENTABIDEAK

Musikaren Hizkera 1 liburu honekin, arlo honetan hasiko diren ikasleei eta euren irakasleei, eskura jarri nahi dizkiegu eskola eroangarri egiteko material idatzi batzuk.

Idatzizko materialak bakarrik direla azpimarratu nahi dugu.

Denok dakigu Musika klasea ikasgai bat irakurtzen jakitea, erritmo fitxa bat betetzea edota diktaketa bat egitea baino gehiago dela. Irakasleak eman behar dio bizitasuna eskolari; solfeo klaseak behar duen "ahozko" lan guztia irakasleak eman behar dio. Liburu batek ezin izango du inoiz ordezkatu irakasle baten lana; eta irakasleak ezin dio inoiz liburu batean adierazten den bideari itsu-itsuan jarraitu. Irakasleak baino hobeto ez ditu inork ezagutzen bere ikasleak. Beraz, irakasleak bakarrik daki zein den ikasgai edo ariketarik egokiena ikasleentzat kasu bakoitzean.

A. LIBURUAREN EGITURA FORMALA

Liburua lau ataletan banatuta dago:

1. Irakurketa
2. Segida melodikoak
3. Piano akonpainamendua
4. Idazketa (fitxak)

1. IRAKURKETA

Atal hau zazpi ikasgaitan banatuta dago.

Ikasgai bakoitzean aurkituko duzue: melodia irakurtzeko ariketak
afinazio harmonikoa lantzeko ariketak
bi ahotserako eginda dauden ariketak
erritmoa lantzeko ariketak: "Abestu, egin txalo eta jo"

Atal hauetan guztietan, Sol klabea eta Fa klabea erabili dira. Uste dugu garrantzitsua dela hasiera-hasieratik lantzea Fa klabea Sol klabearekin batera, Sol klabearen atzean garrantzirik handiena duena bera baita. Bestetik, garrantzitsua da bi klabeak lantzea musikaren grafia erlatiboa dela erakusteko, noten irakurketa aldatu egiten baita klabearen arabera.

Atal honetako langaiak hauek dira: Do M eskala pixkanaka-pixkanaka lantzea osatu arte eta aipamen txiki bat egitea re m (r-m-f-s-l) pentakordoari; baina oraindik Maiorra-minorra bereizketa landu gabe. Egia esanda, Do M eskalako notak ezagutzeak ematen dizkiguten baliabideak apur bat lantzea da helburua.

Atal honen helburua notak idazten ikastea da, irakurmena arintzea eta entonazioa ziurtatzea, beste musika zeinu batzuk ere badaudela ikastea eta ikasleari bere musika zentzua lantzen laguntzea, horretarako esaldien esakera eta dinamika erabiliz.

a) Melodiaren irakurketa:

Ikasgaiaren lehen zati honetan, normalean "solfeo ikasgaia" esaten zaiona aurkituko duzue.

Gure liburuan "ikasgai" horiek hauek dira: herri abestiak eta autoreen abesti eta doinuak.

Batzuetan esaldietan agertzen diren zeinuak –koma, arkuak– ez dira agertzen. Hori horrela egin dugu ikasleari berari zeinuak egoki deritzon lekuan jartzeko aukera emateko, beti ere irakaslearen laguntzaz, noski. Horrela, esaldiak aztertuko ditu eta hori ezinbestekoa da edozein musika atal behar bezala egiteko, nahiz eta gauzarik errazena izan. Ikasleak zera aintzakotzat hartzea nahi dugu, musikaren hizkeraren egituran dagoena esaldia dela eta ez nota askeak. Alderdi hori praktikan ezagutu behar dute zentzumenen bidez. Eta beharrezkoa da behin eta berriro gogoratzea edozein musika zati irakurtzen denean, ahotsaren bitartez zein tresnen bitartez.

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

b) Afinazio harmonikoa lantzeko ariketak:

Ikasgai bakoitzaren bigarren zatian, entonazio edo afinazio harmonikoa lantzeko ariketak daude. Ariketa hauen helburua arlo horretan dauden aukera mordoa gainetik aipatzea da.

Bi ahotseko ariketak dira. Lehenengo ahotsak segidatxo bat, melodia txiki bat, abesten du (ikasgai bakoitzean agertuko diren melodia elementuez osatuta dagoena) bigarren ahotsak kantatutako oinarri baten gainean. Segida bakoitzerako oinarri bat baino ez dugu idatzi (segidako lehenengo notari edo garrantzitsuenari dagokiona); baina oinarri moduan har daitezkeen notak seriekoak beste edo irakasleak proposatzen dituenak beste izan daitezke. Beraz, harmonia lantzeko esparru hau zabaldu egin daiteke.

Ariketa hauen helburu nagusia grafia batzuetatik abiatu eta soinuen aldiberekotasuna lantzeko lan praktikoa egitea da. Umeek segida melodikoak aldi berean egin daitezkeela eta horrek joko harmoniko zabala eskaintzen duela ikusi behar dute. Segida melodiko txiki bat, arpegio edo bitarte (interbalo) melodiko bat oinarri baten gainean entzuteak edota kantatzeak nolako soinua sortzen duen ikusi behar dute.

Bi ahotsekoak kantatzeko lehen urrats moduan ere balioko dute ariketok.

c) Bi ahotseko ariketak:

Ikasgai bakoitzean bi ahotseko ariketak lantzeko konposizio laburrak agertuko dira, hirugarrenetik aurrera. Eta hiru ahotsekoak ere egongo dira, azkenengoan.

Material honek ahots bakarreko ariketen ezaugarri berak ditu; helburua du desberdina: ikasleari polifoniari buruzko lehenengo kontzeptuak eman nahi zaizkio.

d) «Abestu, egin txalo eta jo»:

Ikasgai bakoitzean agertzen den azken zati honek erritmoa lantzen du bereziki.

Helburua –erritmoari buruz ikasi dena indartzeaz gain– motrizitatea lantzea da erritmoaren laguntzaz. Oso ezaugarri garrantzitsua da edozein intrumentistaren prestakuntzan eta erritmoaren zehaztasuna zein garrantzitsua den erakusten du.

Atal honek umearen sormena bultzatzen du “asmatu...”, “osatu...” eta antzeko beste ariketa batzuen bidez. Oso garrantzitsua da sormenezko ariketak landu, entzun, aztertu eta baloratzea beti, nahiz eta beti azalduta agertu ez.

Erritmoa lantzen dugunean, beharrezkoa da beti soinuarekin batera lantzea: erritmoa eta soinua ez dira banatu behar. Huts-hutsean erritmikoak diren ariketak lantzen ditugunean, soinu luzea duten tresnak erabili behar ditugu, edo ahotsa bera nota bera nahi beste bider errepikatuz edo melodia bat momentuan asmatuz.

Bi zati daudela ikusiko duzue:

Lehenengo atalean erritmoa lantzeko ariketak aurkituko dituzue.

– Polirritmiak (○ , □ eta △ ikurrekin adierazita agertzen dira) taldeka lantzeko dira. Komenigarria da ahots bakoitzerako tinbre bat erabiltzea: tresna desberdinak, tresnak erabiltzen baditugu, gorputzeko atalak (oinak, belaunak, eskuak, atzamarrak) edota nota desberdinak abesteko notak erabiltzen badira.

– Erritmoa lantzeko ahots bateko ariketak, ezkerreko eskurako eta eskuineko eskurako. Lateralitatea lantzen lagunduko digute.

– Erritmoa lantzeko ahots bateko ariketak tinbre bat baino gehiagorako (oinak: lurrean pikatu oinekin, ezkerrekoarekin edo eskuinekoarekin; txaloak: mahaian eskuekin pikatu, ezkerreko edo eskuinekoarekin,...), eta tinbre bakoitzerako pentagrama bat erabili.

Melodia eta erritmoa biak agertzen diren ariketak ere aurkituko dituzue:

– Melodia erritmo-akonpainamenduarekin: erritmo idatzia, erritmo ostinatoak,…

– Erritmoa melodia akonpainamenduarekin: melodia ostinatoak,…

Atal honetako ariketetan irakasleak askatasun osoa du gauzak aldatzeko, gehitzeko edo ikasleen edozein ideia sartzeko. Material hau guztia, musika arloko edozein materialen moduan, oso erraza izan arren, kamarako musikako obra txikia bihur daiteke (tresnak gehituz, perkusiozko tresnekin joz, erritmo bati notak gehituz...) eta obra txiki horien egileak umeak izango dira irakaslearen laguntzaz.

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

Bigarren atalean (Enriqueta Farràs-ek egin duen atalean), perkusiozko tresnentzat moldatu/egindako pieza txikiak daude. Perkusiozko tresna horiek soinu zehatz bat dutenak (xilofonoa, metalofonoa,...) izan daitezke edo soinu zehaztugabea dutenak (panderoa, triangelua,...). Baina helburua, bai batean bai bestean, umea musika munduan modu errazean sartzea da, baina era berean zertan ari den dakielarik. Horregatik jarri ditugu batez ere ikasleentzat ezagunak diren abestiak, bere eskura dauden akonpainamenduak, zailtasun handirik gabe irakurtzeko eta interpretatzeko modukoak.

"Helburu horrekin –dio egileak– egin dira moldaketa hauek erritmo-melodia ostinatoak erabiliz eta zailtasuna apurka-apurka areagotuz. Beharrezkoa da zorrotza eta otzana izatea aldi berean. Tresna horien oinarrizko teknikak ikastea, esaten den eskuarekin jotzea ez da lan erraza, baina luzarora onuragarria izango da denontzat: egingo dugun soinua ederragoa izango da eta koordinazioa behar bezala menperatzea lortuko dugu eta horrek asko lagunduko digu beste tresna batzuk jo behar ditugunean".

Partituran, hasierako letrak edo irudiak erabili dira tresnak aipatzeko.

Honela:	K	=	kariloia		=	panderoa
	XS	=	xilofono sopranoa		=	triangelua
	XK	=	xilofono kontraltoa		=	kaxa txinatarra
	MS	=	metalofono sopranoa			
	MK	=	metalofono kontraltoa			
	X/MB	=	xilofono/metalofono baxua			

Banatu egin ditugu plaka tresnen idazketa eta soinu zehaztugabea dutenena, ikasleek errazago irakur dezaten, soinu zehaztugabea duten tresnek beti ostinato bat errepikatzen dute eta. Partituran besterik agertzen ez bada, tresna hauek pieza hasten den momentuan hasten dira jotzen.

Aurkeztu ditugun harmonizazioekin, posible da guk adierazi ditugun tresnen ordez eskura dituzuen edo umeek eurek latak, kanaberak, makilak, kutxak eta abar erabiliz egin dituztenak erabiltzea.

Uste dugu material hauekin lan aberats eta handia egin daitekeela erritmo eta motrizitatearen prestakuntzan, sormenaren garapenean, entzumen aktiboan, musikaren hizkeraren ezagutzan eta, taldeko lanaren bidez, besteei entzutean.

2. SEGIDA MELODIKOAK

Segida melodiko hauek melodiaren afinazioa eta irakurketa lantzen lagunduko duten ariketak dira.

Ikusiko duzuenez, ariketa hauek antolatuta daude honako ezaugarri hauen arabera:

- segida mota
- konpasa
- melodia bitartea

Lan honen helburua, batez ere, melodia irakurtzen lagunduko diguten entonazioaren automatismoa eta memoria lantzea da.

Segida hauetan, ez dugu pianoaren akonpainamendua sartu. Beharrezkoa izanez gero, irakaslea bera gauza izango da segida harmoniko batzuk asmatzeko tonu-oinarri aproposa emateko melodiari.

3. PIANOAREN AKONPAINAMENDUA

Beharrezkoa iruditu zaigu ahots bateko melodia guztietan pianoaren akonpainamenduak sartzea. Baina akonpainamendu horiek ez dira "tonu-oinarri" erraz eta sinplea bakarrik (ezaugarri horiek dituzten zenbait akonpainamendu sartu ditugun arren); horrez gain, "musika egiteko" aukera zabala ematen dute.

Ikasle eta irakasleei urrats bat aurrera egiteko aukera eman nahi diegu eta horretarako lehenengo pauso hauetan ikasleek eskura dituzten musika elementu apurrak aprobetxatu ditugu, azken emaitza aberatsagoa izan dadin. Aldi berean, gainera, umeek hartzaile izaten ikasiko dute entzumen eta akonpainamendu ariketa hauek arlo hori lantzen baitute bereziki.

Helburu horretan lan egin du Mariona Vilak bere piano akonpainamenduekin eta, berak dioen bezala, "umearen jolasteko nahia hartu abiapuntutzat eta XX. mendeko musikaren hizkeraren kolorea eman nahi izan dio, bereak dituen elementuekin. Oso jolas erritmiko garrantzitsua da, askotan pianoa perkusiozko tresnatzat hartzen du, disonantzia lehenengo unetik irakasten da, baina, noski, elementu modalak eta tonalitate garbiak dituen elementuak ez dira albo batera uzten.

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

4. IDAZKETA

Liburuko atal honek 30 fitxa ditu. Fitxa hauek liburutik kendu daitezke zuzenketak errazago egiteko. Bertan, mota askotako ariketak agertzen dira:

- elementuak ezagutu eta antolatzeko ariketak
- diktaketa osoak edo zatiak egiteko ariketak
- erritmo figuren baliokideak lantzeko ariketak
- banaketa lerroak jartzeko ariketak
- abesti ezagun bat idatzi edo osatzeko ariketak
- sormenezko ariketak
- notak pentagraman adierazteko ariketak: notei izenak jarri, notak modu grafikoan sailkatu…
- Klabe batetik bestera transkribatzeko ariketak
- Melodia aztertzeko ariketak: berdintasunak/desberdintasunak ikusi, zatiketa (esaldietan banatu), galdera/erantzuna, abesti baten zatiak antolatu,…
- Errepikapen zeinuak lantzeko ariketak

Hau guztia fitxetan dator. Hainbat alderdi lantzen dira –erritmoa, melodia, azterketa…– sarritan bakarka ere bai.

Gutxi gora-beherako sailkapen bat eginez gero, zera esan dezakegu:

1etik	6rako fitxak	1. ikasgaiari dagozkio
7tik	11rako “	2. ikasgaiari “
12tik	14rako “	3. ikasgaiari “
15etik	19rako “	4. ikasgaiari “
20tik	23rako “	5. ikasgaiari “
24tik	25erako “	6. ikasgaiari “
26tik	30erako “	7. ikasgaiari “

Fitxa bakoitzaren edukia errazago kokatu eta identifikatzeko, honako ikur hauek erabili ditugu:

 → erritmoa lantzeko fitxak

 → entonazioa lantzeko fitxak

 → melodia lantzeko fitxak

A → analisia lantzeko fitxak

 → errepikapen zeinuak lantzeko fitxak

Sinbolo horien inguruan, triangelua edo zirkulua ager daitezke eta hauxe adierazten dute:

→ ikasleak berak bakarrik egin ditzakeen fitxak, bai gelan bai etxean. Ikasi dituen ezagutza batzuk idatziz adierazi beharko ditu.

→ “diktaketa” fitxak: ikasleari idatzizko erantzun bat emateko eskatzen zaio irakasleak edo beste ikasle batek ematen duen entzutezko estimulu baten aurrean.

Diktaketa osoa edo zatia lantzen duten ariketa guztietan irakasleak berak asmatu beharko ditu guk idatzita ematen ez ditugun elementuak; hau da, diktaketa osatzen duten elementuak eurak. Elementu horiek ikasgai bakoitzaren zailtasun mailaren araberakoak izango dira, noski. Ariketa hauek egiteko aukera anitz daude: irakasle eta ikasleak zenbat, aukerak hainbat.

Fitxa batzuetan abestiak erabili ditugu proposatzen diren ariketak lantzeko. Irakurketa atalean agertzen diren abestiak dira guztiak lau izan ezik:

«**Ambó, ató**»: herrikoa, gaztelaniazkoa (23. fitxa); «**Mendian bai da eder!**»: herrikoa, euskalduna (30. fitxa). Bi hauek oso-osorik idatzita agertzen dira ariketan. Beste biak osorik idatziko ditugu hemen, fitxetan ez daude osorik eta:

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

Kukua (17. fitxa) herrikoa, alemana. – Testuaren moldaketa: Itziar Bilbao



Ku- ku, ku- ku, en- tzun, ku- ku. A-bes- ti- a kan- ta- tzen e- gu- nez. Ku- ku, ku- ku. Goi- zal- de- an.

Zalditxo bat... (18. fitxa) Z.Kodàly – Testuaren moldaketa: Itziar Bilbao



Zal- di- txo bat gur- di- txo- az a- rin ga- la- pan, la- rre e- ta ze- la- ie- i a- gur di- o- tse.

Fitxetako ariketa bakoitzerako egin ditugun galderak edo galderak egiteko modua aukera bat baino ez da. Galdera horiek egiteko, beste modu asko daude.

Uste dugu oso garrantzitsuak direla analisia bultzatzen duten galderak, hori baita bakoitzak bere musika irizpideak eta zentzua egiteko bidea. Lan metodo hau erabiltzea ezinbestekoa da Musika eskola batean.

B. BIBLIOGRAFIA

Hasieran aipatu dizuegu zein zen liburu honen helburu nagusia: material idatzia baino ez izatea Musika eskoletako lana errazteko eta, horrez gain, irakaslearen lana zein garrantzitsua den azpimarratzea.

Ahozko baliabiderik aipatu ez badugu ere, horrek ez du esan nahi ahozkotasuna ez datorrela bat hemen aurkezten dugun lan honekin. Alderantziz, silaba erritmikoak, fonomimia, eta antzeko baliabideak erabiltzea oso-oso egokiak dira. Ez gara luzatuko baliabide didaktiko hauen guztien aipamenean, ez nola osatuta dauden ez nola erabili behar diren, suposatu behar baita irakasleek oso ondo ezagutzen dituztela. Badira zenbait urte gure herrian zabaldu zirela eta uste dugu horiek ezagutzea behar-beharrezkoa dela. Beste alde batetik, horiek sakon aztertzeak beste liburu bat egitea eskatuko luke, irakasleentzat egina.

Musika pedagogiari buruzko metodologien bibliografia sartuko dugu hemen:

- *Principes fondamentaux de l'éducation musicale et leur application* de M.Martenot. Editorial Magnard (Paris).

- *Educación Musical* d'E.Willems. Editorial Ricordi (Buenos Aires).

- *La rythmique Jacques Dalcroze* de M.L.Bachmann. Editions de la Baconnière,S.A. (Neuchâtel, Suitza).

- *La iniciación musical del niño* de V.Hemsy de Gainza. Editorial Ricordi (Buenos Aires).

- *Orff-Sculwerk. Música para niños.* de M.Sanuy i L.González Sarmiento. Unión Musical Española (Madril).

- *La educación musical en Hungría a través del método Kodàly* d'E.Szöny. Editorial Corvina (Budapest).

- *L'Education musicale en Hongrie* de J.Rivière-Ravelart. Editorial Alphonse Leduc & Cie. (Paris).

Bartzelona, 1997ko urtarrila

DINSIC • AB1

Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

C. EDUKIEN TAULA

IKASGAIA	**notak**	**irudi erritmikoak**	**konpasa**	**klabeak**	**Beste batzuk**
1	*s - m*	♩ , 𝄽 , ♫	2/4	𝄞 eta 𝄢	*f* , *p* , *mf*
2	*l*	𝅗𝅥	— — —	— — —	
3	*d*	— — —	— — —	— — —	— — —
4	*r*	𝅗𝅥.	3/4	— — —	— — —
5	*f*	— — —	— — —	— — —	𝄇 , 𝄆 𝄇 1. 2. 𝄇 D.C. al Fine
6	*d′*	— — —	— — —	— — —	*D M arpegioa*
7	*si*	— — —	— — —	— — —	*Do M eskala*

OHARRA :

Bada elementu bat, biribilaren isilunea , gure *Abesten 1* ean erritmoko eduki gisa lantzen ez dena; baina, hala ere, melodiaren irakurketa lantzeko lehen ikasgaian hasita agertzen da. Itxaron beharreko konpasen ondorioz gertatzen da hori, ikasgaien hasiera, erdia edo amaiera pianoaren akonpainamenduaren arabera sortu baitira.

Argitu beharra dago itxaron beharreko konpasak bat baino gehiago direnean, normalean izaten duten grafiaren ordez, egokiago eta errazago iruditu zaiguna jarri dugula: 3 ; hau da, biribilaren isilunea bera ageri da baina isilik egon beharreko konpasen kopurua goialdean jarrita, eta, horrela, zeinu bakarra erabili dugu gauza bera adierazteko hainbeste zeinu erabili beharrean.

Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa. DINSIC • AB1

AURKIBIDE OROKORRA

Liburuaren helburuak 3
..... 5
Irakasleen orientabideak: Liburuaren itxuraren egitura 6
Bibliografia 10
Edukien taula 11
Aurkibide orokorra 12
Fitxen aurkibidea gaien arabera 12
Idazketa eta akonpainamenduen aurkibidea 13
IDAZKETA 18
SEGIDA MELODIKOAK 89
IDAZKETA: Fitxak 97
PIANOAREN AKONPAINAMENDUAK (ikusi liburu honen eranskina)

FITXEN AURKIBIDEA GAIEN ARABERA

Mota	Gaia	Ikasgaia	Fitxa	Or.
*	erritmoa	1	1	139
		1	5	143
		2	7	145
		4	15	153
	melodia	1	4	142
		2	11	149
		3	13	151
		4	19	157
△		5	23	161
		7	27	165
		7	29	167
	entonazioa	1	2	140
		2	8	146
		3	12	150
		4	16	154
		5	20	158
		6	24	162
		7	26	164
		7	28	166
	erritmoa	1	3	141
		2	9	147
		4	17	155
	melodia	1	6	144
		2	10	148
		3	14	152
		4	19	157
○		5	22	160
		7	29	167
	analisia	3	13	151
		3	14	152
		4	18	156
		5	21	159
		6	25	163
		7	29	167
		7	30	168
	errepikapen zeinuak	5	23	161
		7	27	165

* ikusi azalpena 9. orrialdean

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

IRAKURKETEN ETA AKONPAINAMENDUEN AURKIBIDEA

	zb.	Titulua	Egilea / erreferentzia	Or.	Akonp./Moldaketa	✷ Ak. or.
1. IKASGAIA		Irakurketa melodikoa				
	1	Cinco pollitos	haur kanta	18	X.Torns	3
	2	Non zaude?	herrik. katalana-Moldaketa:A.Etxeberria	18	M.Vila/ ≈	3
	3		idazleak (≈)	19	»	5
	4		≈	19	»	4
	5		≈	19	»	4
	6		≈	19	»	5
	7		≈	19	»	5
	8		≈	20	»	5
	9		≈	20	»	5
	10		≈	20	»	5
	11		A.Alegre	20	A.Alegre	6
	12		A.Alegre	20	A.Alegre	6
		Afinazio harmonikoa	≈	21		
		Abestu, egin txalo eta jo				
	1		≈	22		
	2		≈	22		
	3		≈	22		
	4		≈	23		
	5		≈	23		
	6		≈	23		
	7	Ariketa x 3	E.Farràs	24	E.Farràs	
2. IKASGAIA		Irakurketa melodikoa				
	13	Harginaren abestia	herrik. katalana. Moldak.:A.Etxeberria	26	M.Vila	6
	14	Leloa	≈	27	»	6
	15	Krik, krak	herrik. katalana. Moldak.:A.Etxeberria	27	»	4
	16	Cançó per fer bales…	herrik. katalana	27	»	7
	17	Kaixo! Egun on!	Ana Etxeberria	28	J.Ll.Rigol	8
	18	Aquel caracol	haur kanta	28	E.Farràs	8
	19		≈	29	M.Vila	9
	20		≈	29	»	9
	21		≈	29	»	9
	22		A.Alegre	29	A.Alegre	7
	23		A.Alegre	29	A.Alegre	7
	24		≈	30	M.Vila	9
	25		≈	30	»	9
	26		≈	30	»	9
	27		≈	30	»	9
	28		≈	30	»	9
		Afinazio harmonikoa	≈	31		
		Abestu, egin txalo eta jo				
	1		≈	32		
	2		≈	32		
	3		≈	32		
	4		≈	33		
	5		≈	33		
	6	Ariketa	E.Farràs	33	E.Farràs	
	7	Harginaren abestia	herrik. katalana	34	E.Farràs	
3. IKASGAIA		Irakurketa melodikoa				
	29		≈	36	M.Vila	10
	30	Beñat, Beñat	tradizionala, katalana.Modalk.:A.Etxeberria	36	»	12
	31		≈	36	»	10
	32		≈	37	»	11
	33		≈	37	»	11
	34	Salomgo kanpaiak	herrik. katalana. Moldak.:A.Etxeberria	37	»	(akonp. erritmikoa)
	35		A.Alegre	38	A.Alegre	13
	36		A.Alegre	38	A.Alegre	10
	37		≈	38	M.Vila	13
	38		≈	38	M.Vila	12

✷ Eranskinari dagokion zenbakikuntza liburu honetako piano akonpainamenduarekin.

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

39 ..... ≈ ..... 38 ..... » 14
40 ..... ≈ ..... 39 ..... » 13
41 ..... ≈ ..... 39 ..... » 14
42 ..... ≈ ..... 39 ..... » 13
43 ..... ≈ ..... 39 ..... » 15
Afinazio harmonikoa ..... ≈ 40
Bi ahotsera
1 ..... ≈ 41
2 ..... ≈ 41
3 ..... X.Torns 41
4 ..... X.Torns 41
Abestu, egin txalo eta jo
1 ..... ≈ 42
2 ..... ≈ 42
3 ..... ≈ 42
4 ..... ≈ 43
5 ..... ≈ 43
6 ..... ≈ 43
7 Salomgo kanpaiak ..... herrik. katalana ..... 44 ..... E.Farràs

4. IKASGAIA Irakurketa melodikoa
44 ..... ≈ ..... 46 ..... M.Vila 15
45 Kanona ..... ≈ 46
46 ..... Ll.Alegre ..... 46 ..... Ll.Alegre 15
47 Panpina ..... I. Urbieta ..... 46 ..... J.Ll.Rigol 11
48 ..... ≈ ..... 47 ..... M.Vila 16
49 ..... ≈ ..... 47 ..... » 16
50 ..... ≈ ..... 47 ..... » 18
51 ..... ≈ ..... 47 ..... » 18
52 ..... ≈ ..... 47 ..... » 18
53 ..... ≈ ..... 47 ..... » 17
Afinazio harmonikoa ..... ≈ 48
Bi ahotsera
1 ..... ≈ 49
2 ..... X.Torns 49
3 ..... X.Torns 49
4 ..... X.Torns 49
Abestu, egin txalo eta jo
1 ..... ≈ 50
2 ..... ≈ 50
3 ..... ≈ 50
4 ..... ≈ 51
5 ..... ≈ 51
6 ..... ≈ 51
7 Ariketa 3/4an ..... E.Farràs ..... 52 ..... E.Farràs

5. IKASGAIA Irakurketa melodikoa
54 Aserrín, aserrán ..... herrik. gazteleraz ..... 54 ..... E.Farràs 19
55 Udaberria ..... Jon Oñatibia ..... 54 ..... J.Ll.Rigol 22
56 Ikusi ahatetxoak ..... herrik. alemana. Moldak.:A.Etxeberria . 54 ..... E.Farràs 22
57 Kanon zaharra ..... herrikoa 55
58 Haurtxo txiki egizu lo ..... herrik. frantsesa Modalk.:A.Etxeberria . 55 ..... M.Vila 20
59 Chocolate, molinillo ..... herrik. gazteleraz ..... 55 ..... E.Farràs 25
60 Ongi etorri… ..... herrikoa ..... 55 ..... J.Ll.Rigol 21
61 Ene maitea ..... herrikoa ..... 56 ..... J.Ll.Rigol 19
62 Binbili, bonbolo ..... herrik. euskalduna ..... 56 ..... E.Farràs 25
63 Pedra, pedreta ..... herrik. katalana ..... 56 ..... M.Vila 23
64 Bir, bir, bir ..... Modalk.: I. Urbieta ..... 56 ..... » 20
65 Itsasertzean ..... herrik. danimarkarra ..... 57 ..... » 24
66 Uso zuria ..... herrikoa ..... 57 ..... J.Ll.Rigol 26
67 Errekan amuarrainak ..... herrikoa ..... 58 ..... J.Ll.Rigol 24
68 Bi ta bat (kanona) ..... A. Etxeberria 58
69 ..... ≈ ..... 59 ..... M.Vila 27
70 ..... ≈ ..... 59 ..... » 27
71 ..... ≈ ..... 59 ..... » 28
72 ..... ≈ ..... 59 ..... » 28
73 ..... ≈ ..... 59 ..... » 29
Afinazio harmonikoa ..... ≈ 60

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

Bi ahotsera
1 Nire astotxo leiala ..... herrik. katalana. Moldak.:A.Etxeberria . 61
2 Zoaz negu ..... herrik. alemana 61
3 ..... ≈ 61
4 Bertako kanpai txiki ..... herrik. alemana 62
5 Tourdion ..... dantza frantsesa. XVI. m. 62
Abestu, egin txalo eta jo
1 ..... X.Torns 63
2 ..... ≈ 63
3 ..... X.Torns 63
4 ..... ≈ 63
5 Arraintxoa ..... herrik. katalana ..... 64 ..... E.Farràs
6. IKASGAIA Irakurketa melodikoa
74 ..... ≈ ..... 66 ..... M.Vila 29
75 ..... ≈ ..... 66 ..... » 30
76 ..... ≈ ..... 66 ..... » 31
77 ..... ≈ ..... 67 ..... » 30
78 ..... ≈ ..... 67 ..... » 32
79 ..... ≈ ..... 67 ..... » 32
80 Pastela ..... trad. hungariarra. Moldak.:A.Etxeberria 67 ..... » 33
81 Azeria ..... A. Auschütz - Moldak.:A.Etxeberria ..... 68 ..... Ll.Alegre 34
82 ..... Ll.Alegre ..... 68 ..... Ll.Alegre 34
83 ..... Ll.Alegre ..... 68 ..... Ll.Alegre 35
84 ..... ≈ ..... 69 ..... M.Vila 36
85 ..... ≈ ..... 69 ..... » 36
86 ..... ≈ ..... 69 ..... » 36
87 ..... ≈ ..... 69 ..... » 36
88 ..... ≈ ..... 69 ..... » 36
89 Azkar egin salto ..... herrik. hungariarra–Moldak.:A.Etxeberria 69 ..... » 35
Abestu, egin txalo eta jo
1 ..... ≈ 70
2 ..... X.Torns / ≈ 70
3 ..... ≈ 70
4 ..... ≈ 71
5 ..... ≈ 71
6 ..... X.Torns 71
7 ..... ≈ 71
8 Ariketa ..... E.Farràs ..... 72 ..... E.Farràs
9 Txoria ..... Mònica Bofill (5 urte)–Moldak.:A.Etxeberria73 ..... E.Farràs
7. IKASGAIA Irakurketa melodikoa
90 ..... ≈ ..... 76 ..... M.Vila 38
91 ..... ≈ ..... 76 ..... » 39
92 ..... ≈ ..... 76 ..... » 37
93 ..... A.Alegre ..... 77 ..... A.Alegre 38
94 ..... » ..... 77 ..... » 38
95 ..... » ..... 77 ..... » 39
96 ..... » ..... 77 ..... » 39
97 ..... » ..... 77 ..... » 39
Bi ahotsera
1 ..... ≈ 78
2 ..... ≈ 78
3 Kanona ..... N.Bonet 78
4 ..... » 79
5 ..... » 79
6 ..... » 80
7 ..... » 80
8 ..... » 81
Abestu, egin txalo eta jo
1 ..... ≈ 82
2 ..... herrik. alemana / Ll.Alegre 82
3 ..... Ll.Alegre 82
4 ..... » 83
5 ..... » 83
6 ..... » 83
7 Ikusi ahatetxoak ..... herrik. alemana ..... 84 ..... E.Farràs
8 Pastela ..... tradizionala, hungariarra ..... 86 ..... E.Farràs

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.





45 Kanona





47 Panpina



DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

3/4 Konpasa
𝅗𝅥. Zuri puntuduna



Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.
DINSIC • AB1











DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

BI AHOTSERA



DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

ABESTU, EGIN TXALO ETA JO

1 .



Jo bi eskuekin: eskuinekoarekin goikoa eta ezkerrekoarekin behekoa.

2 . *Jo erritmo hauek mahai gainean eskuineko eskuarekin eta ezkerrekoarekin, letrek adierazten dizuten moduan:*



3 . *Zein erritmo doakio ondo melodia honi? Idatzi:*



DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

4 .



5 . *Abestu melodia hau txaloka azpiko erritmoa daramazun bitartean.*



6 .



DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.

7. *Ariketa* $\frac{3}{4}$ *an*



DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.



Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.





SEGIDA
MELODIKOAK

1, 2, 11, 22 eta 26rako aukerako erritmoak:



5, 16, 24 eta 28rako aukerako erritmoak:



6 eta 17rako aukerako erritmoak:



Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa. DINSIC • AB1

SEGIDA MELODIKOAK

d - r - m - f - s - l - si - d'

Biko bitartea

$\frac{2}{4}$ konpasa

1 ✻



2 ✻





3





4





$\frac{3}{4}$ konpasa

5 ✻





✻ : Ikusi aukerako erritmoak 90 or.

DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.









Hiruko bitartea

$\frac{2}{4}$ konpasa





DINSIC • AB1
Liburuak fotokopiatzea ez da legezkoa.